

# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 28a / 702. zenbakia



## SANTA AGEDA BEZPERARAKO GERTU

OTSAILAREN 4AN KANTUAN ETA ESKEAN IRTENGO DIRA HAINBAT LAGUN

**ORAIN ETA HEMEN:** MONTERRONGO ZUHAIKAK/6 • **KIROLA:** OXEL ETXEBARRIARI ELKARRIZKETA/8

ARGAZKIA: UBANE MADERA

**OSASUN GIDA/20**



## KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu saltokixek domeketan zabalketie?



**ALBERTO RUIZ DE AZUA**  
Erretiraue



**LEIRE BEITIA**  
Langillie



**AURELIO SANZ**  
Langillie



**BEGOÑA BEDIA**  
Langillie



**IMANOL MORENO**  
Erretiraue



**IDOIA ALTUNA**  
Langillie

Neuri ez dust zuzenien eragitten, baiñe gureko neuke komertzio txikiñek aurrera egittie. Akaso, guretako domeketan zabalketie bentajie izen leike, baiñe bestiei kalte egin barik.

Alde batetik, aste barruen konprak egin ezin daudenandako bentajie da domeketan zabalketie, komoduague da. Baiñe komertzietan lan egin biher daudenandako kaltegarrix.

Neuk behintzet gureu dot domeketan komertzioiek ez zabalketie. Hareik be jaiegune hartzeko aukerie euki biher daue. Gaiñera, horrek komertzio txikiñei kalte egingo dutzo.

Bizi danien egin dot lan dandan, eta pentsetan dot domeketan komertzioiek itxitte egon biher diela, langillien dako ordu asko die-eta. Eroslielik ez dauko konprak domeketan egiteko premiñak.

Domeketan itxitte egon biher die. Dendarixek ez badauko eskubideiek egun bat jai hartzeko, bestiok zergaittik? Elektrizisten eta bestelakuen premiñie beizeten dogu domeketan.

Neu ez nau ados. Domekie deskantsetako egune da, eta aurreko egunetan aukerie dau biher dien konprak egiteko. Neuk ez dutzet komodidade klase horrei preferentziaik emuten.

### TXALOAK ETATXISTUAK

**ARRASATE MONDRAGÓN**  
2005

SIA ESTÉTICA  
NUTRICIÓN Y NUTRICIÓN  
MODELACIÓN CORPORAL  
DEPILACIÓN LASER  
CENTRO MÉDICO ABORTAZA

**TXISTUAK KALE-IZENDEGIARI KRITIKAK** Emakume Kontseiluak eta beste hainbat lagunek aditzera eman dute kale-izendegi berriko iragarki baten emakumezko bat biluzik agertzen dela. Kale-izendegia Nekar enpresak egin du, eta Udalak izendegia egiteko eta banatzeko baime-na eman dio, iragarkia gainbegiratu barik. Udalak Berdintasun Plana hitzartuta duenez, iragarkia aldatzeko eskatu ez izana salatu dute.

### ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

**Erreferenduma prestatzen**

Erreferendumean hauteskunde-mahaietan egongo diren herritarren zerrendak zozkatu dituzte.

GAZTEAK / 13

**Rai Bueno ipuin kontalaria**

Rai Bueno ipuin kontalariari elkarrizketa egin diogu. Udal Liburutegian egin zuen saioa.

ZAHARRAK / 14

**Pedro Fernandez**

Pedro Fernandez erretiratuari elkarrizketa egin diogu. Ez du aspertzeko astirik izaten.

### ASTEKODATUA

**191.039**

**LAGUN IBILI ZIREN IAZ AUTOBUS URBANOAN**

Leintz Garraioak enpresak aditzera eman duenez, 2004an 191.039 lagun ibili ziren Arrasateko autobus urbanoan. Batez beste, eguneko 632 lagunek erabili zuten zerbitzu hori.

### BESTEKEESANA

**“ Korrikaren antolaketak lan itzela dauka, eta hainbat batzorde eratzten dugu arlo guztiez arduratzeko.**

**Batzorde horiek lurraldeka ere egituratzen dira, eta guztien lan eritimoa ez da berbera izaten. Horrekin esan gura dut Iparraldean egingo diren ekintza kulturalak hango batzordeen baitan daudela, nazio mailako beste proposamenekin koordinaturik betiere. Kontua da egitarau nazionala aurkeztean nahiago izan dugula soilik guztiz lotutako ekintzen berri ematea. Iparraldean, oraingoz, Euskararen 7 bekatu nagusiak antzezlanaren emanaldia, dute lotua, martxoaren 6erako. Ziur izan, alabaina, ez dela ekitaldi bakarra izango, gehiago antolatzeke lanean gogotsu ari baitira, eta laster iragarriko ditugu”**

**ITXARO ARTOLA**  
'BERRIA'/05-01-21

### HERRITARRENBERBAK/ Aitor Zabalo



*Erreka garbia*

**O**rain dela gutxi entzundut Deba eta Aramaio ibaietara botatzen ditugun ur zikinak garbitzeko depuradora egiteko proiektua onartu berri dela. Gipuzkoa mailan azkenak izango bagara ere, 2007rako gure erreketara botatzen ditugun ur zikinak garbiturik botako ditugu.

Bada denbora bat herrian hori gauzatzeko obretan ari direla, baina hala ere gezurra dirudi egunen batean Deba eta Aramaio errekek garbi egon daitezkeenik.

Egia da noizbait etxean nire aitari entzun izan diodala errekan bainatzen zirela, gazteak zirenean. Koadrila bakoitzak omen zuen bere txokoa errekan bainatzeko. Eta nik ikusi dudana behintzat oso gauza zaila zirudien, baina egia izango zen, noski.

Akordatzen naiz aspaldi norbaitek esan zidala Arrasate-tik Bergarara errekek hamar aldiz aldatzen zuela kolorez. Datu hau kontuan edukita, ez

dut uste ni erreka horretan inoiz bainatuko naizenik. Ez dakit-eta ura garbi edukitzea nahikoa den erreka garbi dagoen esateko, eta ikusitakoak ikusita.

Konturatu naiz, bestalde, azken hilabeteotan San Andres inguruan nabiltenean, inguru horretako ibaiak beste itxura bat duela, garbiago ikusten dut. Ur gutxiagorekin, baina askoz garbiago. Badirudi horretan behintzat bide onetik goazela, eta gerta daiteke nonbait ikusi dudana kartela egia bihurtzea egunen

baten. Hau da, *Arrantza debekatua* kartelak arrainak daudela adieraziko duela, eta ez aspalditik dagoelako hor eta kendu behar zuenak kentzea ahaztu duelako.

Geroago, eta egoera txar-rago batetik irten bagara ere, kasu honetan helmugara heltzea da garrantzitsuena. 2007ko helmuga Europatik datorren lege batek jartzen duen epea muga da, eta justu-justu beteko da.

**“Aspaldi, Arrasate-tik Bergararako ibilbidean, errekek hamar aldiz aldatzen zuen kolorez”**

**Arrasate**  
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Iker Barandiaran

**ERREDAKZIOA**  
Xabier Urzelai  
Ubane Madera

**MAKETAZIOA**  
Alex Azkarate

**ZUZENTZAILEA**  
Sergio Azkarate

**PUBLIZITATEA**  
Natali Martínez  
Imanol Elortza  
Amaia Mundiñano

**ADMINISTRAZIOA**  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

**BANAKETA**  
Marta Leturia

**LEGE-GORDAILUA**  
SS-1124/88

**ISSN**  
0214-4654

**TIRADA**  
7.350 ale

**Goiena**  
Kommunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaio  
Udala

**ASTEABIHITZETAN**

**Arrasate Fitur turismo azokan**

Eguazten goizean ireki zuten Madrilén Fitur nazioarteko turismo azoka, eta Debagoieneko eta Arrasateko turismoa ordezkatuta dago azoka horretan. Debagoieneko turismo bulegoko Ana Herizek Arrasate Irratiari egindako adierazpenetan esan du Debagoiena nazioarteko azoka batean egotea oso garrantzitsua dela: "Eskualde hau ez da turismorik bizi, baina gero eta etekin handiagoa ateratzen zaio arlo horri, eta gero eta garatuago dago". Datorren domekara arte egongo da irekita azoka hori, eta milaka lagunek bisitatuko dute opporretarako aukera onena bilatzeko asmoarekin.

**Gripea dela-eta, ospitalea kolapsatuta**

Joan den astean onartu zuen Gabrien Inclan Eusko Jaurlaritzako osasun sailburuak gripea dela-eta erkidegoko ospitaleak gainezka daudela, eta Arrasate ez da salbuespena. Iaz, esaterako, batz besterik 86 gaixo jaso zituzten larrialdietan, eta aurten ehun bisitatik gora jaso dituzte egunero. Adineko jendea da batez ere ospitaleratu behar izan dutena, gripeak sor ditzakeen infekzio eta biriketako arazoak saihesteko. Larrialdi zerbitzuko arduradun Iñaki Agirianok GOITBri egindako adierazpenetan esan zuen argi geratu dela larrialdi zerbitzuak handitzeko dagoen beharra.

**Elurraren eraginez, zirkulazio arazoak**

Astean zehar bota duen elurraren eta egin duen izotzaren ondorioz, zirkulazio arazoak izan dira ibarrean, eta baita Arrasaten ere. Martitzenean istripua izan zen saihesbidean. IFAM enpresaren parean auto batek eta kamioi batek talka egin zuten, baina ez zen zauritu larririk izan. Horrekin batera, eguazten goizean Epelen kamioi bat geratu zen ez aurrera eta ez atzera; izotzaren eraginez laban egiten zuen. Soraluzeraino egon ziren auto-ilarak.



**Korrika Kulturala antolatzeko lanean**

Joan den astean herriko hainbat talde, kultura elkarte eta ikastetxeetako ordezkariek elkartzeko ziren AEDren egoitzan, Korrika Kulturala antolatzeko asmoarekin. Martxoaren 16an pasatuko da Korrika Arrasatetik, eta dagoeneko hasi dira lanean martxoaren 12an, zapatua, Korrika Kulturala antolatu ahal izateko.



**USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran**

*Ispiluaren arabera*

**J**oan den astean Madrilén terrorismoaren biktimen kontrako kale-agerraldi baten Jose Bono ministroari eraso egin zioten hainbat lagunek. Bazter asko astindu ditu albisteak, baina hemen inguruan ez dut uste asko harritu direnik.

Muturreko erreakzioak ikusten ohituta gaude, are gehiago eskumako alderdien eskutik. Talde bakezale

batzuen mozorroak agerian gelditzen dira. Hala ere, salbuespenak egon badaude, jakina.

Ahots batzuek gertaera hori orain dela gutxi Juan Mari Atutxak jasandakoarekin konparatu dute. Ibarretxeren plana Madrilera eraman zueneko, hain zuzen ere. Egun hartan eskumako lagun batzuek iraindu egin zuten.

Egia da, iraintzen duten lagunaren arabera, hedabideek oihartzun handiagoa edo txikiagoa ematen diotela. Atutxaren kasuan, jakina, ez zen gertaeraren kontrako ahots askorik entzun.

Hala ere, niri Atutxak ez dit pena handirik ematen. Berak ere badu zer konfesatu eta. Pena handiagoa ematen dit militar batzuek Donostian jipoitu zuten EHGAMeko gaztea. Gertaera latz horri laburren bat besterik ez diote eskaini egunkariek.

**ASTEKOIRUDIA**



**ELURRAREN KAPA ZURIAK UDALERRIKO BIZITZA-ERRITMOA ZEHARO ALDATU DU**

Eguraldi iragarleek bete-betean asmatu dute oraingoan. Martitzen ilunkeran hasi eta batez ere eguaztenean manto zuria zabaldu zen udalerrian. Betiko moduan, gure ibarra erdi isolaturik gelditu zen, eta auzoetatik jaisteko nahikoa lan izan zuten batzuek. MUK eskolak bertan behera utzi zituen eta

hainbat lantokitan pertsonal erdia lanean izan zen. Gainontzeko eskolek ez zuten etenaldirik egin, baina gaztetxo askok piper egin zuten, elurraren tenazioak lagunduta. Elurra egiten duen bakoitzaren besteak beste, gure bizitza-erritmoa zeharo aldatu da, eta hori ez da gutxi. /I.B.

**Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrika erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a  
Tel./Faxa: 943 79 01 82

**PUB HAIZEA**

arrasate



## SAN SEBASTIAN MARTXAKO DOINUAK ARRASATE IRRATIAN

Joan den eguean egon ziren Arrasateko Herri Eskolako ikasleak Arrasate Irratian, San Sebastian martxa abesten. Ondo zekiten abestia, entsegu asko egin zituzten-eta. Ez zen izan, baina, egun horretan egin zuten ekimen bakarra, lehenago ere ikastetxean ibili ziren-eta abesten. Eurak moduan, Arrasateko beste ikastetxe askotan ere danbor hotsak entzun ahal izan ziren goizean zehar. Donostiako danborradarekin alderatuta txiki geratu bazen ere, herriko gaztetxoek ederto pasatzeko aitzakia izan zuten.



## ARRASATEKO DEBAGOIENA ZIKLOTURISTA TALDEA HASI DA AURTENGO LIZENTZIAK EGITEN

Eta taldeko lizentziak berritzen dabilenez, aprobetxatu gura dute ziklismoa atsegin duten kirolariei ere deialdia zabaltzeko. Bizikletan ibiltzea atsegin dutenek laster hasiko dute denboraldia, nahiz eta inguruko errepideetan dagoeneko txirrindulariak ikusten diren. Urtarrileko lehenengo asteotan eguraldi ederra izan dugu, baina azken astean gordeta egon dira bizikleta

guztiak, edo gehienak, behintzat. Zikloturisten taldeak poliki-poliki hasiko du urtea, eta lehenengo irteeratan kilometro gutxi egingo dituzte. Denboraldi amaierako irteera, berriz, urrian egingo dute. Ondoko argazkia urrian ateratakoa da, Dorletan. Seguru, ordutik batek baino gehiagok hartuko zuela kiloren bat edo beste. Ordua da berriro ere kilometroak egiten hasteko!



## JAI ZALEKO MAHAI- FUTBOLEKO TXAPELDUNAK

Argazkian daudenak dira Jai Zale tabernako mahai-futboleko txapelketan maila onena erakutsi dutenak. Ezkerretik eskuinera daude Asier eta David, Iker eta Mikel eta Aitor eta Kaiet. Eskuinaldean daudenak hirugarren sailkatu ziren, eta ezkerreko bikotea bigarren. Txapelketa irabazi zuen erdiko bikoteak, Ikerrek eta Mikelek. Hiru finalistentako sari ederrak izan ziren. Antolatzaileak gustura geratu dira, baina emakumez osatutako bikote gehiago espero zituzten. Bi bikote izan dira; datorren urterako, gehiago.

# BEDOÑABE HAURRESKOLA

(0-2 urte bitarteko eskola)



Noiz: urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra  
Matrikulazio epea apirila edo maiatzean eskolan hasteko  
Non: Arrasateko Haurreskolan, BEDOÑABEN  
(Alfontso VIII kalea, San Andres auzoa) Tel.: 943 79 76 86

HAURRESKOLAK



Espezie autoktonoak ekarriko dituzte Monterronen botatako zuhaitzak ordezkatzeko.

INGURUMENA/ Monterrongo zuhaitzen birlanaketa

## Belgikatik ekarriko dituzte Monterronerako zuhaitzak

UBANE MADERA

Belgikako mintegi batetik ekarriko dituzte Monterronerako zuhaitz berriak, 40 bat erosiko dituzte. Espezie autoktonoak ekarriko dituzte: astigarrak, haritzak, pagoak... Otsailaren erdialde inguruan hasiko dira guztia egiten: zuhaitzak eskatu, ekarri...

Iñigo Igiñiz adituaren gidaritzapean, Udalak erabaki du Belgikako mintegi bati erostea Monterronerako ekarri beharreko zuhaitz berriak. Obrak, Zerbitzuak eta Mantentze Saileko ordezkariak esan digutenez, 40 bat zuhaitz erosiko dituzte. Bota zituztenak baino gehiago dira. Izan ere, botatakoak bezain zuhaitz handiak ezin dira ekarri eta birlanatu. Horren ondorioz, txikiagoak ekarriko dituzte.

Horrenbestez, lehengo kopuru bera ipiniz gero, Monterron huts samar geratuko litzateke. Gauzak horrela, 40 bat landatuko dituzte eta zuhaitzak handitzen direnean, ondo egokitu direnak utzi egingo dituzte, eta gainerakoak, kendu.

### BERTAKO ESPEZIEAK

Espezie autoktonoak ekarriko dituztela adierazi digute. Monterronen hemengo zuhaitzak ipini

*40 bat zuhaitz ekarriko dituzte; botatakoak baino gehiago, hutsunerik gera ez dadin*

nahi dituztelako. Hala, astigarrak, pagoak, haritzak, ezkiak... ekarriko dituzte.

Obrak eta Zerbitzu Sailetik jakinarazi digutenez, otsailaren erdialde inguruan hasiko dira hori guztia egiten: Belgikara zuhaitzak eskatu, ekarri eta landatzen. Kamioi berezietan ekarri beharko dituzte. Ekarri baino lau egun lehenago egingo dituzte Monterronen zuhaitzendako zuloak. CESPAn arduratuko da lan horrekin. Eta CESPAn arduratuko da, baita ere, gero zuhaitz berriak landatzeaz.

### ORAINDIK DISEINUA FALTA DA

Edozelan ere, horrekin ez dira bukatzen Monterrongo lanak. Oraindik ere parkea diseinatzea falta da eta haren behin betiko erabilera erabaki. Hori oraindik egin barik dutela jakinarazi digute Udaletik.

## Hitzaldiak eta ikastaroak, Emakume Txokoaren egitarau berrian

U.M.

Emakume Txokoak aurkeztu du otsail eta martxorako ekitaldien egitaraua. Ikastaroen berri ematen hasiko gara, izan ere, dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Hala, otsailaren 14tik apirilaren 25era bitartean, barretera-

pia ikastaroa egingo dute. Eta otsailaren erdialdean hasita, automobilien mekanika erakutsiko dute. Horrekin batera, altzari txikiak zaharberitzeko, autoestimazioa lantzeko, asertibotasuna eta komunikazioa lantzeko eta jazz eta funky dantzak ikasteko ikastaroak ere antolatu dituzte. Ema-

kume Txokoan. Gogora ekarri beharra dago ikastaroak emakumei zuzendutakoak direla.

Bestelakoei dagokienez, otsailaren 23rako emakumeen kontrako indarkeriaren gaineko hitzaldia iragarri dute, eta, jakina, Martxoaren 8rako ere badabilta ekitaldiak prestatzen.

## Euskal Etxea zabaldu dute Shangain

U.M.

Shangaitik bidali digute argazki hori. Izan ere, Euskal Etxea zabaldu dute han, 24 bazkiderekin. Zerbait enpresatako kideak dira bazkide, tartean, Shangaiko Fagor Etxetresna Elektroetakoak. Besteak beste, Dikar, Cegasa eta Grupo Sparber enpresetako kideak eta Jaurlaritzako zenbait beka-dun ere badira bazkide. Hala ere, asmoa da bazkide korporatiboak ere lortzea: Grupo Fagor, MCC...

Hala, Euskal Etxea Shangain bizi diren langileendako elkargune izateaz gain, inguruan interesatzen dituzten euskal enpresendako elkargune izatea gura dute.

Argazkia Euskal Etxea erantzen zutenean ateratakoa da, urtarrilaren 22an. Kideen artean, makuruta, ezkerretik bigarren dagoena Jesus Amezaga da, urte luzean Arrasaten bizi den bilbotarra eta zutik, ezkerretik lehena dagoena Iñaki Bañuelos da. Biak halaber biak Fagor Automazionekoak.



Elkartea eratu eta gero, afaria egin zuten Jaurlaritzako zenbait kiderekin.

## LABUR

### Santa Teresa kalean aparkalekua egiteko lanak laster esleituko dituzte

Santa Teresa kalean, 31 ibilgailurendako aparkalekua erail behar dute laster. Hain zuzen ere, oraingo asteko Tokiko Gobernu Batzarrak lanok esleitzeko baldintzen plegua onartu du.

Hala, baldintza administratiboen artean, erabaki dute asko joko duen 62.934 euroko aurrekontua izango dutela lanek. Horrenbestez, horietatik behar bezain proposamenak aurkeztu beharko dizkiote Udalarria. Era berean, lanak esleitu ostean, hiru hilabeteko epean eraiki beharko dute Santa Teresa kaleko aparkalekua.

### Emakumearen Nazioarteko Egunerako kartel lehiaketa antolatu du Udaleko Emakume Sailak

Martxoaren 8ari begira, Udaleko Emakume Sailak kartel lehiaketa antolatu du. Edozein pertsonak parte har dezake eta teknika librea izango da; hori bai, *Martxoak 8 Arrasaten eta munduan* lehiaketa derri gorazaldu behar da kartelean, eta kartelen neurria asko joko duen 50x70 zentimetro izango da. Irabazleari 800 euroko saria emango diote. Parte hartu gura duenak otsailaren 16a baino lehen eraman beharko du kartela udaletxera, Emakume Sailera. Informazio gehiago gura duenak 943 79 41 39 telefonora dei dezake.

### Autobus urbanoak %28 gainditu ditu iaz egindako aurreikuspenik optimistenak

Urtero moduan, Leintz Garraioak enpresak autobus urbanoaren erabilerearen gaineko txostena aurkeztu du Udalean. Datuek erakusten dutenez, iaz 191.039 bidaiari izan zituen urbanoak, 632 bidaiari eguneko. Hilez hil begiratu, irailean ibili da jende gehien (19.700 bidaiari) eta abuztuaren gutxien (10.170); astegunegi begiratu berriz, barikuetan ibili da jende gehien (735) eta astelehenean gutxien (629). Datuon arabera, %28 gainditu dituzte iaz aurreikusitako kopururik optimistenak. Hori bai, txostenak dio bidaiariak ere Udaleko Ongizate Sailak diruz laguntzen duen bonoaren erabilera aurreikusitakoa baino txikiagoa izan dela.

HAUTESKUNDEAK/ Otsailaren 20an erreferenduma izango da

# Murgildu gara berriro ere hauteskunde giroan

U.M.

Aukeratu dituzte datorren otsailaren 20an hauteskunde-mahaietan egongo diren arrasatearren izenak. Guztira, 288 lagunen izenak atera dituzte, hauteskunde-mahaietako titular eta ordezkokoak batuta. Orain, zazpi eguneko epea dute erreklamazioak egiteko.

Batetik irten eta bestean sartu. Azkenaldian, badirudi eten bari-ko hauteskunde giroan gaudela sartuta. Izan ere, joan den martxokoak oraindik ere ahaztu barik, dagoeneko bagaude bestelakoen zain. Hori bai, oraingo honetan apurtxo bat bereziagoak izango dira hauteskundeak. Ohiko hauteskundeak barik, erreferenduma izango dugulako. Europako Konstituzioa onartzen dugun edo ez galdetuko digute, otsailaren 20an. Hala, astelehenean, osoko bilkura berezia egin zuen udalbatzarrak, hauteskunde-mahaietan egongo diren herritarren izenak aukeratzeko. Azken urteotan moduan, Jose Mari Balantategik ordenagailu programa berezi bat erabili zuen lan horretarako. Hala, behin herritarrek izendatuta, biharamunean bertan hasi ziren jakinarazpenak herritarrei zuzenean helarazten, udaltzainen bitartez. Hauteskunde-mahaian egotea tokatu zaien ezin badute egon, zazpi eguneko epea dute erreklamazioak egiteko. Bergarako Epaitegian egin behar dituzte erreklamazioak. Gero, epaileak erabakiko du emandako arrazoia onartu edo ez. Onartuz gero, ordezkoko bat ipiniko dute.

Era berean, esan beharra dago oraingo erreferendumerako lan egitea tokatu arren, posible dela hurrengo hauteskunde batzue-



Ordenagailua erabili zuten herritarren zerrenda aukeratzeko.

*Datorren hil hasieran, otsailaren 4an, hasiko da hauteskunde kanpaina*

tarako ere tokatzea. Gogora ekarri beharra dago maiatzean EAEko Legebiltzarrerako hauteskundeak izango ditugula.

#### HAUTESKUNDE-ESKOLAK BATERATU

Bestalde, bilkura berean, Inazio Lakuntza alkateak jakinarazi zuen aztertzen dabilzala zenbait hauteskunde-eskola bateratzeko auke-

*Espainiako Estatuaren da erreferenduma egingo duen aurrenekoa*

ra. Esaterako, Erguin eta Jokin Zaitegi hauteskunde-eskolak bat egin eta Iturripen bakarra ipintzeko aukera aztertzen dabilza.

Argitutakoaren arabera, hauteskunde-eskola batzuk ez daude behar bezala egokituta, bereziki, zailtasunak dituztenei begira. Hala, leku egokiagoak erabiltzeko aukera aztertzen dabilza.

## Kalamuaren gaineko hausnarketa egiteko ekimena

U.M.

Ikusita kalamuaren kontsumoa geroago eta ohikoagoa dela gure gizartean, zenbait ikastetxetako gazteei haren gaineko hitzaldiak emango dizkiete. Aitor Alkorta psikologoak emango ditu berbaldiak.

Geroago eta gehiago hedatzen dabil kalamu edo cannabisaren kontsumoa gure inguruan. Esaterako, gazte askoren artean dagoeneko ez da aisialdirako kontua bakarrik, egunerokoa baizik. Era berean, kalamua kontsumitzen hasteko gazteen adina aurreratu dabilela diote ikerketek.

Horregatik guztiagatik, Udaleko Gizarte Sustapeneko Sailak zenbait ikastetxerekin elkarlanean erabaki du kalamuaren gaineko berbaldiak ematea gazteei.

#### LANDUKO DITUZTENAK

Oro har, ekimenaren helburua da kalamuaren kontsumoaren gainean gazteei pentsaraztea. Honako gaiak landuko dituzte: kalamuaren ezaugarriak; kala-

mua kontsumitzeko gazteek dituzten motibazioen azterketa; kontsumoaren gehiegikeriaren eta erabilpen arduratsuaren arteko desberdintasunak; gazteen hausnarketa pertsonalari bultzada ematea; eta kalamuaren kontsumotik eratorritako arrisku posibleak.

#### BIGARREN HEZKUNTZAKOEI

Lehen aipatutako moduan, Aitor Alkorta psikologo arrasatearrak emango dizkie berbaldiak. Ikastetxe bakoitzak aukeratuko ditu egunak eta hitzaldien entzuleak. Hala, zenbait ikastetxetan hasi dira hitzaldiak egiten; bestetan geroago hasiko dira. Hain zuzen ere, oraingoan, honako ikastetxeek parte hartuko dute ekimenean: Arizmendi Ikastolak, Institutuak, Mesedeetako Andra Mari ikastetxeak eta Lanbide Hastapenak.

Udaleko Prebentzio teknikari Maite Aizpirik adierazi digunez, batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako ikasleei eta Lanbide Heziketakoei zuzenduko dizkiete hitzaldiak.

## LABUR

### Mozio ugari landuko dituzte datorren asteleheneko osoko bilkuran

Urtarrilari dagokion ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzarrak datorren astelehen goizean (hilak 31). Albiste hau idaztean batzarrerako gai-zerrenda zehaztu barik zuten arren, jakinarazi digute mozio dezente landuko dituztela. Batetik, Europako Konstituzioarekin lotuta, Alderdi Popularrak mozioa aurkeztuko du. Haren alternatiba moduan, Ezker Batuak eta Eusko Alkartasunak mozio bana aurkeztuko dute. Bestalde, Jon Agirre preso aramioarraren gaineko mozio bat ere eztabaidagai izango du udalbatzarrak. Haren osasun egoera latzarengatik kezka azaltzen du, besteak beste, mozioak. Eta bukatzeko, bitxikeria moduan, jakinarazi digute Andaluziaño Castilleja del Campo herritik mozio bat bidali dutela Arrasaten aurkezteko. Hain zuzen ere, mehatxupean bizi diren PSE-EEko zinegotziei elkartasuna adieraztea da mozioaren helburua. Batzarra 09:00etan hasiko da.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

## ELKARRIZKETA

OXEL ETXEBARRIA/ARRASATE ERRUGBI TALDEKO JOKALARIA

## "Errugbian, normalean indar handien duen taldeak irabazten du"

XABIER URTZELAI

Oxel da Arrasateko taldean puntu gehien egin dituen jokalaria, eta txapelketako rankingean ere aurreko postuetan dago. Infantil mailan hasi zen, eta seniorretara iritsi da. Eguaztenean izan ginen berarekin, Arrasate zuri esnatu zen egunean.

**Arrasateko taldean, orain arte, zuk egin dituzu puntu gehien.**


Bai, baina horrek ez dauka meritu handirik, jokatzeko dudak postuarengatik egiten ditut eta puntu horiek. Entsegu baten ondoren edo zigor golpe bati esker zuzenean jaurti behar izaten dut atara, eta horrela egiten ditut puntuak. Meritu handiagoa daukate entseguak egiten dituztenek.

**Daukazun ezker hanka horrekin, baina, futbolerako ere ondo.**

Ez pentsa. Aspaldi esan zidaten Mondran futbolerako ez nuela balio, eta errugbian hasi nintzen. Gainera, taldean badaude nik baino hobeto jaurtitzen dutenak. Ohitura bilakatu da horrelako jaurtiketak nik egitea, beste barik.

**Estatu mailan zabiltzate. Maila polita da, baina era berean gogorra, ala?**

Bai, gogorra da talde batzuek oso maila ona daukatelako. Kontua da, indar handia daukaten taldeen kontra jokatzeko dugula, eta horrelakoetan errazagoa dela min hartzea. Hainbat jokalarik ditugu lesionatuta, eta taldeak igarri egiten du hori. Atletico San Sebastian eta Gernika beste maila bateko tal-



X.U.

deak dira, baina talde osoa izango bagenu, gainontzeko kontrarioei lana emango genieke. Jokalari gutxiarekin gabiltzanez, baina, egurra jasotzen dugu.

**Esango nuke Zarautzen zain zaudetela.**

Bai. Badakigu gainontzeko kontrarioei irabaztea oso zaila dela, baina Zarautzi irabaziz gero, mailari eutsiko diogu.

**Helburua beteko zenukete horrela.**

Bai. Zarautzen kontra daukaguna ematera zelairatuko gara, eta mailari eusten ahalegindu. Gero, uste dut taldeak egin behar duela hausnarketa. Estatu mailan jokatzea esperientzia ona izan da, eta ikusi dugu maila gogorra dela. Erabaki beharko dugu, daukagun taldearekin, gure maila ote den.

## ZALDIBARARETOFUTBOLA

## EMAITZAK

Billy & The Cowboys - La Kuadrilla	5-2
Fuxion - Goma2	2-5
Iriztu - Dribling	5-2
Saukelu Scream - Betraye	3-2
Tomahawk - Lasagabaster	6-4
You Know! - Torpedo Musakola	8-9
Irati Tab. - HLB 108	1-6
Abokajarro - AT Celaya	4-6
Billy & The Cowboys - Tomahawk	3-2

## PARTIDUAK

## URTARRILAK 29, ZAPATUA. EPAILEAK

10:00: Dribling - Saukelu.	Irati Taberna
11:00: Irati Tab. - Goma2.	Dribling
12:00: AT Celaya - Billy & The...	Goma2
13:00: HLB 108 - You Know!	Billy & The...
16:00: Abokajarro - AC Surcos.	Fuxion
17:00: Ekipo Aldeano - Fuxion.	AC Surcos

## URTARRILAK 30, DOMEGA. EPAILEAK

11:00: Manhattan - Tomahawk.	Betraye
12:00: Betraye - Torpedo Musa.	Manhattan
13:00: La Kuadrilla - Iriztu.	Torpedo Musa.

Deskantsua: Lasagabaster.

## SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. You Know!	12	7
2. Irati Taberna	11	7
3. AC Surcos	10	7
4. Lasagabaster	10	7
5. Dribling	9	7
6. Iriztu	9	6
7. Betraye	8	6
8. HLB 108	8	7
9. Saukelu Scream	8	6
10. Goma2	8	6
11. AT Celaya	7	6
12. La Kuadrilla	6	7
13. Abokajarro	4	7
14. Torpedo Musakola	3	7
15. Ekipo Aldeano	3	7
16. Manhattan Pippol	2	6
17. Tomahawk	2	6
18. Billy & The Cowboys	2	5
19. Fuxion	2	7



## HAINBAT EZUSTEKO KOPA TXAPELKETAN

## LEHENENGO POSTUETAN DAUDEN HAINBAT TALDE, KOPATIK KANPO

Futbol profesionalean gertatzen den moduan, Zaldibarren ere Kopak min egin die hainbat talde indartsuri. Hala, lehenengo postuan dauden You Know!, Irati Taberna eta Lasagabaster taldeak txapelketatik kanpo geratu dira. Hemendik aurrera Ligan ibili beharko dira buru-belarri.

Eta oraingo astean ere antolatzaileek erabaki dituzten zigorren berri ematen jarraitu behar dugu. Saukelu Scream taldeko jokalariek batek bi partiduko zigorra bete beharko du Driblingen kontrako norgehiagokan zehar jarrera tamalgarrira erakutsi zuelako. Antolatzaileen esanetan ez da hori egiten duen lehenengo aldiz; kontuz ibili beharko da. Horrekin batera, Iriztu taldeko beste jokalariek batek ere partidu bateko zigorra bete beharko du. Azkenik, ikusi egin beharko da asteburuan zer moduz dagoen Zaldibarko zoria. Astean zehar elurtuta eta izoztuta egon da.

## KIROLAGENDA

## JOKATZEKOAK

## SASKIBALOA

Legarzia - Mugarri Alkesa  
Lehen maila. Zapatua. 17:30. Lizarran.

Mugarri Alkesa - Goierri  
Juniorrak. Zapatua. 12:00. Arrasaten.

Atletico San Sebastian - Mugarri Alkesa  
Kadeteak. Zapatua. 10:00. Donostian.

## FUTBOLA

Mondra - Hondarribia  
Preferentea. Zapatuan. 16:00. Atxabalpen.

Mondra - Ordizia  
Ohor. Gazteak. Domekan. 15:45. Atxabalpen.

Aretxabaleta Arizmendi - Arrasate  
Gazteak. Zapatuan. 17:30. Aretxabaletan.

Arrasate - Baskonia  
Ohor Kadet. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.

Zumaiako - Arrasate  
Infantilak. Domekan. 12:00. Zumaiako.

## Intxaurdi - Mondra

Neskak. Domekan. 12:00. Donostian.

## ESKUBALOA

Hondarribia - AGR Arrasate  
Lehen territ. Domekan. 11:30. Hondarribian.

Arrasate - Donibane  
Bigarren territ. Domekan. 11:30. Iturripen.

Gatz Museoa - Zarautz  
Gazteak mut. Zapatuan. 18:00. Iturripen.

Arrasate - Arrate  
Neskak. Domekan. 10:00. Iturripen.

## JUDO

## Judo Txapelketa Ondarrun

Arrasateko judoekin batera Gipuzkoako eta Bizkaiko judokak egongo dira, eta baita Frantziakoak ere. Zapatuan, 15:00etan Ondarruko kiroldegian.

## MENDIA

## Gipuzkoako birako beste etapa bat, otsailaren 6an

Besaide Mendi Elkarteak Gipuzkoako birako beste etapa bat antolatu du otsailaren lehenengo domekarako. 07:30ean irtengo dira Garibaitik, eta bazkaldu eta gero itzuliko dira Arrasatera. Ibilaldia Aranotik Puerto de Urtora egingo dute, eta antolatzaileen esanetan, lau ordu inguru behar dira osteratxo hori egiteko. Ibilaldia eta gero, Leitzin inguruan geratu eta sagardotegian bazkalduko dute. Irteera horretan esku hartu gura dutenek 35 euro ordaindu beharko dituzte; otsailaren 1a, 2a eta 3a dira izena emateko egunak.

## SASKIBALOA

## Lizarrara joango da Mugarri Alkesa, zapatuan

Sailkapenean ondo-ondoan zeuden Deustori eta Getxori irabazi eta gero, Mugarri Alkesa saskibaloia taldea Lizarrara joango da bihar azkeneko postuan dagoen Legarziaren kontra indarrak neurtzera. Gorka Zurututzaren mutilek bada-kite euren joko mailak behar egiten badu, nafarrak ez direla gora begira ibiliko. Iturripen jokatu zutenean, urria amaieran, Arrasateko taldea makal zebilen eta Legarziakoek ez zuten barkatu. Iturripenko zaleek ikusi zuten nola kanpotarrek 19 puntuko aldeagatik irabazten zuten. Ordua da horri buelta emateko.

## ERRUGBIA

## Hirugarren postuan dagoen Getxoren kontra, kanpoan

Arrasate Errugbi taldeak etxetik kanpo jokatu du oraingo asteburuan. Arrasatearrek ezer gutxi egin ahal izan zuten joan den astean Atletico San Sebastian taldearen kontra, eta oraingo asteburuko kontrarioa ere ez da makala. Ikustekoa izango da Getxoko gorenko taldeak zenbat jokalarik jaitziko dituzten beheko taldera. Lehenengo nazional mailan, bizkaitarrek ez dute aparteko taldea; ohorezko mailako jokalariekin jokatzeko badute, baina, gauzak nabarmen aldatuko dira. Hortxe egongo da norgehiagoka parekatua jokatu edo egurra jasotzearen aldea.



FUTBOLA

# Puntu bateko aldeak banatzen ditu Mondra eta biharko kontrario Hondarribia

Azken asteotan arazo ugari izan ditu Josu Zubiak hamaikakoak osatzeko; oraindik ere jokalar asko daude min hartuta

XABIER URTZELAI

**Joan den astean Agorrosinen gertatutakoa lehenbailehen ahaztu, eta biharko kontrarioari begira egin du Mondrak astea. Hondarribia izango da Atxabalpen (zapateria, 16:00etan), baina kontrarioak baino gehiago taldeak berak ematen dizkio Josu Zubiari buruhausteak.**

Azken asteotan gura baino lan handiagoarekin dabil Mondrako masajista Iker Sarabia; izan ere, Iker Lopez, Iker Lazpiur, Jon Loiti, Inaxio Dovao, Alberto Matalobos, Arkaitz Garmendia eta Kepa Barbarias min hartuta daude. Horrez gain, Illart Etxeberrriak eta Muxi-k partidu bateko zigorra bete behar dute. Gauzak horrela, Hondarribiari begiratu aurretik nahiko lan izan du Josu Zubiak hutsune horiek guztiak zelan bete asmatzeko.

Hondarribia hamaikagarren postuan dago, Mondra baino bi postu atzerago. Bi talde horien artean, baina, puntu bakarra

dago, eta bihar hiru egongo dira jokoan. Arrasateko entrenatzailearen esanetan, Hondarribia kategoriako talde indartsuena da: "Ez dut ulertzen nolatan ez dauden goiko postuetan, nire ustez oso talde ona daukate eta. Atzealdean, defentsa oso beterranoa daukate. Horrez gain, oso jokalar onak dituzte; Llorente, adibidez. Eibarren jokatzeko dabilen Joseba Llorenteren anaia oso jokalar azkarra da, preferente mailako onenetakoa, esango nuke. Eta aurrealdean ere jokalar arriskutsuak dituzte. Hori bai, erakutsi dute oso irregularrak direla, eta hori da euren ahulgunea. Bestela, kontuan hartzeko moduko kontrarioa da".

Zapatuan ikusi ahal izango du Mondrak Hondarribia zein aldaterekin datorren: dakitena erakustera, edo behin baino gehiagotan egin dituzten hanka-sartzeak errepikatzen. Eta horretan eragina izango du Mondrak nola jokatzeko duen; arrasatearrak dira eta kontrarioaren jokoa baldintzatuko dutenak.



AUTOR UZARRALDE

Joan den astean, lehenengo zatia parekatua izan zen; bigarrean, baina, jokalar bat gehiagorekin Bergara nagusitu zen.

## Andoni Arando: "Erasoan talde moduan jokatu behar dugu"

X.U.

Urteko lehenengo partidua galdu eta gero, AGR Arrasatek erraz irabazi zion joan den astean Hegialderi. Horrela izan behar zuen, gainera, azken postuan dagoenak ezin du eta ezustekorik eman. Erraz irabazi harren, entrenatzaileak esan digu badagoela zer hobetu.



X.U.

Aurrez uste zuten moduan, Hegialde ez zen kontrario izan.

### EZ DAGO BARKATZEKO TARTERIK

Arrasate Eskubaloiko talde riagusiak tarte txikia du hanka-sartzeak egiteko: "Ligako lehenengo fasea amaitzeko sei partidu geratzen zaizkigu, eta esango nuke partidu bakarra gal dezakegula. Hori bai, ikusi egin behar aurrealdean dauden taldeek zer egiten duten. Joan den astean, adibidez, Ormaiztegi galdu egin

zuen Andoainen kontra, eta emaitza hori oso ondo etorri zaigu. Batek daki datozen sei norgehiagoketan zer gertatuko den, baina ezin gara besteei begira ibili".

Hirugarren postuan dago AGR Arrasate, laugarren postuan dagoen taldearekin berdinduta. Ondo dabil Arrasateko entrenatzailea, ez dago huts egiteko tartetik.

## FOTOKIROLA



### Arrasateko atletak Basaurin eta Idiazabalen

Markel Blancok Basaurin egingo duten Euskadiko iraupen-erdi-ko lasterketan hartuko du esku bihar. Arratsaldean, berriz, taldeko beste lasterkari batzuekin batera Idiazabalen izango da. Arrasatek bi talde izango ditu 4x100 metroko lasterketan: Manu Anguas, Remi Diosdado, Martin Davila eta Markel Blanco izango dira lehenengoan; eta Ander Antsoategi, Endika Donai, Ander Amado eta Imanol Esperesate izango dira bigarrean. Arrasatekoek jarriko dute gaña Idiazabalgo lasterketan. /X.U

# Datorren egubakoitzean hainbat lagun Santa Ageda eskean ibiliko dira herrian

IKER BARANDIARAN

Datorren egubakoitzean, otsailaren 4an, hainbat herritar Santa Ageda eskean ibiliko dira herriko auzo eta kaleetan. Horien helburuak dira aspaldiko ohiturei eustea eta beharra dutenendako diru apur bat batzea. Aspaldiko hitzordua da, eta ez dute kalerik egiten.

Aspaldiko kontua da Santa Ageda egunaren bezperan Arrasaten kantuan irtetea. Aspaldiko tradizioa da, baina orain dela hamar-kada batzuk, herriko koadrila batzuek ospitale zaharrerako dirua batzea erabaki zuten.

Ospitale zaharra aspaldi itxi zuten, baina herriko hainbat koadrilak urtero kantuan egiten jarraitzen dute. Azkeneko urteotan, batutako dirua Caritasi ematen diote.

## EGUAZTENEAN, ENTSEGU OROKORRA

Eguaztenean, otsailaren 2an, egin dute hitzordua Karkabal elkartearen, 21:00etan. Santa Ageda bezperan kantuan eta dirua batzen ibili gura duten lagunek, hau da, kantari, poltsero eta laguntzaileek, hara jo beharko dute. Ondo abesteko gaitasuna ez dutenek ere laguntzeko aukera izango dute. Karkabalen entsegu orokorra egingo dute, "batez ere kantua gogoratzeko", azpimarratu zuten.

Egubakoitzeko betiko ibilbidea egingo dute. 08:00etan meza esango dute San Juan Bautista elizan. Horren ostean, batutako lagunak bi taldetan banatuko dira: bata Musakola aldera joango da eta bestea, Bedoña aldera. 13:00etan bi taldeek udaletxean bat egingo dute eta David Artzamendiren zuzendaritzapean abestuko dute. Horren ostean, 14:30ean, Leintz elkartearen bazkalduko dute. Arratsaldean berriro banatuko dira bi taldetan, 19:30ak arte. Monte tabernan bat egin eta alde zaharrean kantuan ibiliko dira. 21:00etan Herriko Plazan abestu ostean, EAren elkartera afaltzera joango dira.

Aipatutako abeslari, poltsero eta laguntzaileekin batera, gaitariak eta txistulariak ere esku



Aspaldiko tradizio horri eusteko gazteen premian daude antolatzaileak.

*Eguaztenean egingo dute batzarra eta entsegu orokorra, Karkabal elkartearen, 21:00etan*

hartuko dute ekimen horretan, urtero bezala.

Ekimenaren bultzatzaileek esku hartzeko gonbita egiten diete emakumezko eta batez ere gazteei: "Urtero, bospasei emakumezko ibiltzen dira kantuan, eta ondo legoke gehiago izatea. Gazteei dagokienez, horien

*Ekimenaren antolatzaileek gonbita egiten diete batez ere emakumeei eta gazteei*

beharra daukagu, kantuan ibiltzen garenon adin ertaina 40 urte da-eta".

Ekimenaren helburu nagusia da aspaldiko tradizioei eta kantuei eustea, gal ez daitezen. Horregatik, oso garrantzitsua deritzote gazteek ere esku hartzeari.

*Ekimenaren helburuak dira tradizioei eustea eta premia dutenendako dirua batzea*

Horrez gain, behartsuendako dirua batzen dute. Joan den urtean, adibidez, 7.100 euro batu zituzten, Caritasek bana zitzaizkien, 2.200 langabeen artean banatu zituzten; 3.000 euro banandu edo ezkongabeei; 600 etxerik gabekoei; eta 1.300 etxe alokairuak ordaintzeko.

## KULTURAPILULAK

### Hutsik gelditu da aurtengo Jokin Zaitegi saria

Eztabaida luzeen ondoren, erabaki hori hartu dute epaimahaia osatu duten Urtzi Urrutikoetxea, Maria Colera eta Edorta Mataukok. 2004ko Literaturako Nobel saridun Elfriede Jelinek austriararren *Die Liebhaberinnen* eleberria itzultzeko 3.200 euroko beka zegoen jokoan.

AED elkarteak eta Elkarlanean argitaletxeak, Kutxa-ko Gizartekintzaren laguntzarekin, antolatu dute lehiaketa hori azkeneko hiru urteotan. Horren aurretik, Jokin Zaitegi sariketan beste lan batzuk itzuli behar izaten zituzten. Literaturako Nobel saridunen lanak itzultzen hasi zirenetik ospe handiagoa hartu du lehiaketak.

Aurten hamalau itzulpen jaso dituzte. Eleberriko lehen lauzpabost orrialdeak itzuli zituzten. Epaimahaiaren esanetan, itzulpenen kalitatea ez da txarra izan, baina ez da liburu oso bat itzultzeko besteko ona izan.

### Arrasate Lehiaketan lanak aurkezteko epea bukatzean

Egubakoitzean, otsailaren 4an, bukatuko da Arrasate Lehiaketan lanak aurkezteko epea. Hala eman du aditza AED elkarteak. Hain zuzen ere, lehiaketa beterano horien XVIII. edizioa da.

Interesatuek honako sailetan esku har dezakete: bertso paper, ipuin, poesia eta komikian. Lehiaketetan, Leintz eta Ugarran ibarretan bizi, lan edo ikasten duten 17 urtetik beherako guztiak parte har dezakete. Adin horretatik gorakoen mailan, berriz, Debagoien osora dago zabalik parte-hartzea.

Ezin izango da bi arlo baino gehiagora aurkeztu, eta lelo batekin sinatu beharko da. Lanak honako helbidera bidali beharko dira: AED elkartearen XVIII. Arrasate Lehiaketarako Paulo Uranga 4, beheka. 20500 Arrasate.

## MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegi osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea  
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE  
e-posta: mz@madinazurak.com

## Monte taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

## ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak osagaiak

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

## ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

ZINEMA/ Astebururako film proposamenak Amaia Udal Antzokian

# AEBetako etorkinen drama eta abenturazko filma

IKER BARANDIARAN

Asteburu honetan ez da antzezlanik egongo. Horregatik, egubakoitzetik astelehenera bitartean egunero emango dituzte filmak. Abenturazko *La búsqueda* eta umeendako *En busca del valle encantado*. Eta egunean, *Maria llena eres de gracia* drama.

Gaur, egubakoitza, bihar, etzi eta etzidamu, *La búsqueda* filma

emango dute. Abenturazko lan horrek 100 minutu irauten du eta Jon Turteltaubek zuzendu du (*Phenomenon, Instinto...*).

Benjamin Franklin Gatesen familiako hainbat belaunaldi Zaldu Tenplarioen altxorraren bila ibili dira. Franklinek aztarna bat aurkituko du: AEBetako Independentzia Adierazpenaren Agirian altxorraren mapa egongo da. Horretarako, agiria lapurtu beharko du, eta etsaiak atzean izango ditu.

Protagonistak honako hauek dira: Nicolas Cage (*Los impostores, Al límite, 60 segundos...*); Diane Kruger (*Al límite, Troya...*), Justin Bartha (*Una relación peligrosa...*) eta Sean Bean (*El señor de los anillos...*), besteak beste.

## ETORKINEN GAINEKO DRAMA

Eguenean, otsailaren 3an, *Maria llena eres de gracia* filma emango dute. 110 minutu irauten du eta Joshua Marstonek zuzendu du. Haren lehenengo film luzea da. Mariak 17 urte ditu eta Kolonbiako herritxo baten bizi da. Hurdun dago eta ez dio inori esan gura. Horregatik, hirira alde egingo du. Han, ezagun batek sabelean heroina AEBetara eramateko lana eskainiko dio. Mariak baiezkoa emango dio.

Protagonistak honako hauek dira: Catalina Sandino, Guillied Lopez, John Alex Toro (*La primera noche...*) eta Patricia Rae (*Nightstalker...*), hain zuzen ere.

Etzi, domeka, gaztetxoek hitzordua izango dute, 17:00etan. *En busca del valle encantado, el viaje de los cuellilargos* filma emango dute. Animaziozkoa da eta 82 minutu irauten du.



AEBetan bizi diren etorkinen gainerako dramak sinesgarritasun handia dauka.




## Peru Altubek egin du Aratusteetako irudia

Arrasateko Peru Altube gaztetxoak -9 urte ditu- irabazi du Aratusteak 2004 lehiaketa. Peruk egindako lana izango da horma-irudietan eta esku-orrietan erabiliko dutena.

Guztira, hamazortzi lan aurkeztu zituzten lehiaketara. Horietatik, bederatzia umeek egindakoak eta beste horrenbeste helduek egindakoak. Epaimahaiari, polita, irudimentsua eta koloretsua iruditu zaio Peruren lana, eta aspaldiko partez ume bati eman dio lehiaketa horren saria. Hortaz, Peruk 360 euroko saria jasoko du. //B.

# Matrikula epea 2005-2006

Haurtzaindegia - Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza - D.B.H



Mesedeetako Andra Maria

IKASTETXEA

Tel.: 943 79 27 73

ARRASATE

## BOTEPRONTUEN

## Angel Fernandez

## KIROL BIDEAK DENDA

XABIER URTZELAI

Futbola gustetan jakuen bi lagun juntetan dienien peligrone izeten da; entrebistiek luze jotzen dau. Futbolan gainien berba egittiez gain, baiñe, beste gauza asko be komentau dusku Angelek. Realekue izenda, Mondra eta Athletic jarraiketan dau: lenea mondraguetarra dalako; eta bigarrena, semie daukolako Lezaman jokaketan.

**Denda bat itxi eta beste bat zabaldu, baiñe kirol munduen betibe.**

Bai, argi neuken dendie zabaldu neuenien kirolan gainekue izen biher euela, hori zalako gehixen domiñetan neuen asuntue.

**Ze moduz?**

Ondo, gustora.

**Denda txikiñendako ez da izengo errexa aurrera egittie.**

Banekixen nahiz eta kirol kontuetan sartute egon, ezin neuela egin beste kirol dendak egitten dauen gauza bera. Denda txikiñe badauketzu oso gauza teknikuek saldu biher dozu, espezializau egin biher dozu. Eta, bestela, 400 metro kuadroko dendie biher dozu.

**Ze saltzen dozu gehixen Kirol Bideak dendan?**

Txapelketetarako trofeuek egitten dogu, eskola kiroleko eta maila txikiñetako kirol taldiek ekipetan dogu, enpresako erregaluek egitten dogu, eta kirol materixala be saltzen dogu.

**Deporte kontuekin jarraitute, ondo dakitzu Mondrako portuerue izetie ze dan; baiñe noixtik Atxabalpen egon barik?**


Ba, aurten zazpi edo zortzi partido ikusi dot. Bai, jarraiketan dot Mondragueko taldie.

**Eta Real ala Athletic jarraiketan dozu gehixau?**

Izen Realekue naz, baiñe semie dauket Athleticen, portero, eta horrek beti tireketan dutzu gehixau.

**Osasunan kontrako derbixen egon zitzen?**

Bai. Partidue ikusten egon nitzen, eta sekulakue izen zan. Huts eta hirukuekin duro bat be



*"Denda bat zabalketako, espezializau egin biher dozu edo 400 m<sup>2</sup> biher dozu"*

ez neuen emungo Athleticen alde, eta taldiek lelengo gola egin euenien ikusi egin biher zan publikue zelan jarri zan.

**Futbola ikusten, seguro neu baiño gehixau fijauko zarela portueretan.**

Bai, izen leike. Gure denporan egitten geuen hanka-sartze iguelak egitten daue oinguek. Orduen konturaketan naz ez gitzela horren txarrak. (Barre)

**Lanera bueltaute, ze da zeure laneko gauza txarrena?**

Lan bat egitteko eskatu dozunien, eta lan hori txarto edo berandu egin dutzuenien. Azken baten, dana neuk egitten badot, badakit klientiei aginddu dutzetena bete

*"Txapelketetarako trofeuek egitten dogu, eskoletako taldiek ekipetan dogu..."*

egingo dotela. Eta horretarako goixeko laurak arte geratu biher banaz, ba aurrera. Baiñe beste baten lanan zain egon biher badozu, eta ez badau kunplidu... Horrek amorru emuten dau.

**Eta onena?**

Lana ondo egitten danien norbera da horren erantzulie. Eta, txarto egitten dozunien, beste horrenbeste. Horrek bultzaketan zau lanien dauketzune emutera.

**Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.**

*El Padrino / El código da Vinci / The Beatles.*

**Kapritxo bat.**

Familixiekin afaritxo bat, edozein lekutan.

## NIREBIDAIAHURA/ Pedro Olmo / Leire Eraña

AEBetara / 2004ko urritik abendura arte

**O**raingo asteko kapituluarekin hasi aurretik, zuzenketa bat: joan den astean, AEBak izendatzeko *Osaba Tom* erabili genuen, eta bat baino gehiago konturatuko zen *Osaba Sam* dela zuzena. Hortxe, bada, zuzenketa.

Joan den astean Pedrok kontatu zizkigun bidaia horretako lehenengo pasarteak, eta Leirek hartuko du orain hitza. Nevada eta Kalifornia ezagutzeko bidaian utzi genituen, trenean: "Kaliforniako hiriburu Sacramenton izan ginen, lagun baten etxean. Handik Nevada aldera egin genuen, eta mugan dagoen Lake Tahoe egon ginen. Eski estazio ederrek daude han, eta metro erdi elur bota zuenez eskiatzen ibili ginen. Mugaren beste aldean, Nevadan, joko baimenduta dago, eta hango bingo batean 84 dolar irabazi genituen. Kostaldera itzultzeko autobusa hartu genuenean, baina, pasarte desatsegina izan genuen. Bost pertsona gindoa zen autobusean, gauez, eta bat-batean poliziek agertu eta geratu egin zuten autobusa. Bomba abisu bat jaso zutela-eta, polizien autoan eramane gintuzten komisariara, atxilotuta egongo bagina bezala. Txakurrek maletak usaindu eta bakean utzi gintuzten. Itxuraz, autobusean zihoan gazte batek aitarekin eztabaidatu, eta bomba abisua aitak eman ote zuen edo... Horrelako zerbait ulertu genuen".

Kaliforniako kostaldera itzulita, San Frantziskora joan ziren zuzenean. "Hiru egun egin genituen han, hiri horretako leku ezagunenak bisitatzen. Hondartzan ere egon ginen, kiteboard egiten, baina hango ura oso kutsatuta zegoen, marroi kolorekoa zen. Santa Cruzko ura ez zegoen hobeto, eta pena hartu genuen, Santa Cruz da-eta surfaren jaio-terrietako bat. Gainera, uretara sartzeak errespetua ematen zuen, eta ez kutsaduragatik, marrazoengatik baizik. Hangoek barre egiten zuten, baina ondo zekiten zer zegoen han". Datorren astean, besteak beste, Las Vegasera eta Los Angelesera eramango gaituzte Leirek eta Pedrok.



*"Poliziak geratu egin gintuen, bomba abisu bat zela-eta"*

XABIER URTZELAI



Arrasateko bikotea, hango baywatch ezagunen egurrezko etxolan.

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

E, TXO!

**GAUR, OKENDOKO  
LUDOTEKAKO JAIA**

Gaur, egubakoitza, Okendoko ludotekan hirugarren urtebetetzeko jaia egingo dute. 17:00etatik 20:00etara bitartean, askaria egingo dute eta hainbat ustekabe atsegin izango dira. Santa Marinako ludotekako erabiltzaileak ere gonbidatu dituzte. Ziur jaia egundokoa izango dela!

**OKENDOKO LUDOTEKAKO  
FUNTZIONAMENDUA**

Astelehenetik, hilaren 31tik aurrera, Txatxili-purdik kudeatzen duen Okendoko ludotekako funtzionamendua aldatu egingo dute. Santa Marinakoa, berriz, ez dute aldatuko.

3 eta 5 urte bitarteko umeek eguaztenetan ezik beste egun guztietan erabili ahal izango dute ludotekako zerbitzua; 6 eta 8 urte bitartekoek astelehenetan ezik beste egun guztietan; eta 9 eta 12 urte bitartekoek martitzenetan eta egueneetan ezik, gainontzeko egunetan. Ordutegia ez dute aldatu: 17:30etik 20:00etara izango da. Aldaketa horiek aditzera eman dituzte eskoletan.

**LUDOTEKAKO ORDUTEGIARI  
GURASO BATZUEN KEXA**

Guraso talde batek aditzera eman digu ez dagoela konforme ludotekako ordutegi eta funtzionamendu berriarekin. Euren esanetan, "halako erabaki bat hartu aurretik gurasoekin eztabaida behar zuten".

Horrez gain, guraso taldeak dio kalitatezko zerbitzua emateko asmoarekin ados daudela, baina ez dituztela "ordutegi eta egutegi murrizketarik gura". Eta honako hau gaineratu dute: "Euskal giro jator batean lagunekin jolasteko eta primeran pasatzeko txokoa gura dugu".

**ELKARRIZKETA**

**RAI BUENO/IPUIN KONTALARIA**

*"Ipuinekin, modu sinboliko baten, beldur txikiei erantzuna ematen diegu"*

ARRASATE IRRATIA/IKER BARANDIARAN

**M**artitzenean Rai Bueno ipuin kontalaria Udal Liburutegian izan zen. Monterronen ikusgai dagoen Beldurraren Aretoaren harira, eskola handia duen ipuin kontalaria gonbidatu zuten. Umeak zur eta lur utzi zituen.

**Ipuinen bitartez beldurra transmititzea samurra da?**

Ez da kontua hori transmititzea, gainera ez dugu beldurra izua edo ikara moduan ulertu behar. Beldurraren areto horrek eta nik kontaktatu ditudan ipuinek ez daukate zerikusirik izuarekin, beldur horrekin. Lagun guztiok barruan beldur txiki batzuk ditugu: bakardadeari, lagun bat galtzeari, heriotzari... Herri-ipuinek beti horrelako beldurrei erantzuna ematen diete. Baina ez daukate zerikusirik izuarekin, beldurrezko istorioekin.

Nik ildo horretatik jo dut. Nire nahia ez da beldurrezko giroa sortzea, umei beldurra transmititzea. Horren aurkakoa, baizik. Guztiok ditugun beldur txiki horiekin, barruan ditugunak, horiekin bizitzen eta aurrera egiten laguntzen dute.

**Eta zuk, Rai, zeri diozu beldurra?**



Gauza askori izan diot beldurra nire bizitzan. Gauza sinpleenak izan daitezke, adibidez, ni gaztetxoa nintzenean maite nuen

lagunari maite nuela esatea beldurgarria zen. Egoera horiek gaindiezinak iruditzen zitzaizkidan. Eta gaur egun, adibidez tes-

tu bat idatzita eduki eta argitalletxe batera hori aurkeztera joan beharra. Norberak besteen aurrean egindako lana erakustea. Irratian, bat-batean hitz egin beharrek ere beldurtzen nau. Orokorreran, pixka bat kikiltzen gaituzten egoera horiek: jendurrean zerbait egin behar dugunean, edo ezagutzen ez dugun giro baten sartzerakoan...

**Eta zuregan jotzen duten neska-mutikoez zeri diote beldurra?**

Harremana saioetan bakarrik izaten dut, eta ez dakit zeri dioten beldur. Bestalde, beldurrezko aretoan irakurri dut umeek zeri dioten beldurra, eta oso bitxia iruditu zait horietako batzuek supermerkatuan galtzeari beldurra diotela.

Askotan iruditzen zait helduak, hezitzaileak edo gurasoak umeak baino askoz beldurriagoak garela. Gauzak aldatu dira, baina egungo gurasoak asko babes ten ditugu umeak. Beldur handia daukagu umeek egin ditzaketen gauzen aurrean.

**Laguntzen dute ipuinek, beldur horiek ateratzen?**

Bai, askotan era sinboliko baten dauzkagun beldur txikiei erantzuna aurkitzen diegu. Gauza bera gertatzen da ipuinekin, filmekin, liburuekin...

**Bihar, zapatua, Bartzelonako Hedtrip eta Zumarragako Spezial Guest, gaztetxean**

I.B.

Bihar, zapatua, kontzertua egingo dute Arrasateko gaztetxean, 22:30ean. Honako taldeek esku hartuko dute: Bartzelonako Hedtrip eta Zumarragako Spezial Guestek, hain zuzen ere.

Hedtrip taldea 1998an sortu zuten Bartzelonan. 1999an, 64 hours izeneko demoa grabatu zuten. 2002an, euren lehenengo lan luzea kaleratu zuten, *The last imposible desire*, eta horren ondorioz jaialdi handi askotan esku hartu zuten (Festimad, Bike Rock

Fest, Eastpack sound tour, *Conciertos de la 2...*).

Iaz, *About useless needs* diskoa kaleratu zuten. Lan horretan rocka, hardcorea, popa eta giro ilunagoak uztartu dituzte, eta ikusleek eta hedabideek oso harrera ona egin diote.

Lan hori aurkeztuko dute Arrasaten, eta eurekin batera Zumarragako Spezial Guest taldeak esku hartuko du.


Spezial Guest taldeak *Gara* egunkariaren bitartez disko bat kaleratu zuen, eta grunge estilokoan egiten dutela esan ohi dute.

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

Garagardo ona, giro hobea



**TXIRRITA**

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

*Aretz*

taberna

"Oilaskoak eta paellak eramateko"

Markole 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

arbolapeta



## ELKARRIZKETA

PEDRO FERNANDEZ/ERRETIRATUA

*“Ezer egin barik egunak oso luze jotzen du; zaletasunak behar dira”*

IKER BARANDIARAN

**P**edro Fernandez oso eza-guna da sasoi bateko gaztetxoaren artean, urtetan ikastolako mantentze-lanez arduratu zelako. Orain dela hamar bat urte erretiratu zen, baina zaletasun asko ditu eta ez da inoiz gelditu egoten.

**Halabeharrez ibarretik kanpo jaio zinen, ezta?**

Bai, hala da. Gurasoak Arrasaten bizi ziren. Hemendik Aretxabaletara jo zuten, baina Espainiako gerraren ondorioz, Bizkaira joan behar izan zuten eta handik Frantziara. Ni bidean jaio nintzen, Karrantzan, 1937an, hain justu.

**Baina haurtzaroa eta gaztaroa Arrasaten eman zenituen...**

Bai, hilabete gutxi nituela Arrasatera bueltatu ginen. Gaztetxotan Maisuen Eskolan ikasten ibili nintzen. Horren ostean, San Viatorrera jo nuen. Azkenik, Ofizialtza ikasi nuen.

**Horren ostean, lanean hasi zinen?**

Bai, hainbat lantoki izan ditut: Gamei, Uribealago, Arrasate... Azken horretan lan egin nuen, 57 urte eta erdirerkin erretiratu nintzen arte. Erretiratzeko eskaintza egin ziguten eta batzuek baiezkoa eman genuen.

**Baina gaur egungo gazte eta heldu askok San Frantzisko Xabier Ikastolako mantentze-langile moduan gogoratzen zaituzte?**

Egia da, baina ez nintzen inoiz hango langile izan. Kontua da ikastola abian jartzea erabaki zutenean hainbat lagun lanean ibili ginela. Behin ikastola zabaldua, mantentze-lanez arduratzeko eskatu zidaten, eta fabrikako lana egin ostean edo aurretik ikastolan konponketa batzuk egiten nituen.

**Zer-nolako oroitzapenak dituzu sasoi hartatik?**

Oso onak. Proiektua bera abian jartzea oso hunkigarria izan zen. Horrez gain, orokorrean, ume eta gaztetxoekin lan egitea pozgarria da. Bihurri samarrak ziren eta batzutan adarra jotzen saiatzen ziren, baina oraindik gehienek agurtzen naute.

**Jakin badakigu erretiratu zarenetik ez zarela inoiz geldirik egon...**

Egia da. Nire ustez, oso garrantzitsua da gauzak egitea. Ezer egin ezan egunak luze jotzen du, eta horri buelta eman behar zaio. Egunero 07:30ean jaikitzen naiz eta oiloei eta txitei jaten ematera joaten naiz Barrenara. Han mahai bat eta erremintak dauzkat, eta eskulanak egiten ibiltzen naiz:



*“Ikastolako proiektua abian jartzea hunkigarria izan zen, eta ondo pasatu nuen”*

makilak, harrizko perretxikoak, dotoretutako sustraiak... Orain dela zazpi-zortzi urte hasi nintzen zaletasun horiekin.

**Orain dela gutxi arte, zure lanak Harresi aretoan egon dira ikusgai. Konta egiguzu zer diren dotoretutako sustraiak.**

Emazteak eta biok mendira joateko ohitura handia daukagu, astean bizpahiru aldiz joaten gara: domeketan, Zاراia mendi elkar-tekoekin eta aste barruan gure kontu. Mendira joaten naizen bakoitzean sustraiak hartzea gustatzen zait. Barrenara eramaten ditut, eta han garbitzen eta dotoretzen ibiltzen naiz. Forma bitxiak izaten dituzte. Ezkutatu-tako irudi edo forma hori agerira atera gura izaten dut.

**Sasoian zaude. Pilotan jokatzen ere sarri ikusi zaitugu...**

Txikitatik jokatu dut pilotan. Hasieran Gurea pilotalekuan jokatzen genuen, *baratora*: gal-tzen zuenak apostua ordaindu

*“Azkeneko zazpi-zortzi urteotan, makilak eta bestelakoak egiten ditut”*

behar izaten zuen. Gogoan daukat domekero mezaren ostean Gureara joaten ginela, eta oinetakoak ez hondatzearen, ortozik jokatzen genuela. Gaztea nintzenean, herriko txapelketa batzuetan esku hartu nuen Zabaleta bikote nuela. Horren ostean, nagusitxoagoa nintzela, Erro enpresak antolatutako norgehiagoketan jokatu izan dut: auzoetako jaietan, erretiratuen omenaldietarako... Pilota jokoan nire bikotekide fidela Sierra izan da.

Aspaldian, eguaztenero Apotzagara jotzen dut, eta zapatuetan Obenerrekara. Lagun artean pilotan jokatu eta afaldu egiten dugu. Kirola egin eta lagunekin egoteko aukera proposa da.

**Ez daukazu Benidormera joateko ohiturarik?**

Ez. IMSERSOrekin pare bat bidaia egin ditut, baina gurago dut nire kontu bidaiatu. Halako leku turistikoak ez ditut oso gustuko.

## LABUR

**Herriko erretiratuen elkarteetako bazkideek urteko kuota ordaindu beharko dute**

Erretiratuen elkarteetan dagoeneko hasi dira urteko kuota kobratzen. Hala eman dute aditzera. Abaroan, urtarrilaren 19tik otsailaren 28ra artean egin beharko dute ordainketa hori. Bestalde, Uribarri erretiratuen elkartearen ere zabaldu dute ordainketak egiteko epea. Komeni da lehenbailehen ordaintzea. Gai nontzeko elkarteek ere gauza bera egingo dute laster.

**Eguenean eta egubakoitzean mahai-jokoan txapelketa egingo dute Uribarri elkartearen**

Urtero moduan, Uribarri erretiratuen elkarteak mahai-jokoan txapelketa antolatu du. Datorren astean jokatuko dituzte partidak: eguenean eta egubakoitzean, hain zuzen ere. Bi egunotan, 16:00etan hasiko dira jokatzen.

Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea, eta interesatuek bulegora jo beharko dute lehenbailehen. Txapelketan hiru joko-tan lehiatuko dira: musean, tutean eta briskan.

Uribarriko txapelketako irabazleak ibarreko erretiratuen txapelketan lehiatuko dira gainontzeko elkarteetako irabazleen kontra. Eta ibarreko irabazleak Debagoiena ordezkatzeko dute Gipuzkoako Txapelketan.

**Abaroa elkarteko batzarra arduratuta dago Udalak Iturbide egoitzan dituen asmoekin**

Abaroa elkarteko batzarrak idatzi bat aditzera eman du, Iturbide egoitzan egin gura dituzten hobekuntza lanak direla eta. “Abaroa erretiratuen elkarteko batzarrak esku artean daukan informazioaren arabera, uste du Udalak Abaroa elkartea dagoen lekutik bota egin gura duela”. Hori dela eta, Abaroako batzarrak azpimarratu du “Udalak ez duela Abaroaren ordezkari leku aproposik aurkitu, oraingoaren baldintza berberak edo hobeak betetzen dituenik”. Eta batzarrak bazkideei aditzera eman gura die “oso arduratuta gaudela, ez dakigulako noiz eta nora eramango gaituzten”.

**Arrasateko aitona, Patxi Egidazu, hil da**

Hilaren 19an hil zen Arrasateko aitona. Patxi Egidazuk 103 urte egingo zituen apirilaren 10an. Udalako Dolara baserrian jaioa, han bizi izan zen, mutilzahar. Igeltsero lanean ibilitakoa zen, eta, besteak beste, Etxe Txikiak eta Zerrajerako hainbat lan egin zituen. Erretiratu ostean, ganadua zaintzen ibili zen, 98 urterekin min hartu eta utzi egin zuen arte. Orduan joan zen medikuarengana lehen aldiz, eta jakin zuen bere familiako medikuak 25 urte zera-mala hilda. 100 urte bete zituenean zoriondu egin genuen, eta sasoiaren zegoen. Hala segitzen zuen. /ARGAZKIA: JOSU OTADUI

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Zein izen dauka azken urteotan Arruena parkera etortzen den zirkuak?  
Arrastoa: ez da ez euskarazko berba bat, ezta espainolezkoa ere.

**Super BM**

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Mendisol ekilore-olioa**  
litro bat

**0,79€** 131 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**ANDONI LARRINAGA**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Andoni!  
Galderen erantzun zuzena:  
**Olatxo etxea.**

ARRASATEKO HISTORIA

# Arrasateko baserri auzoetako bideak (VIII)

'ARRASATEKO BASERRI...' / G. ARZELUS

**B**esaide inguruan hasi eta San Andres auzoraino iritsiko gara baserri-bideen gaineko gaurko gainbegiratuan:

**"Besaide bide (1460, 1848):** Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia probintzien mugak diren tokiari Besaide deritzo. Betidanik izan da leku garrantzitsua, handik igarotzen baitziren Garagartza, Gesalibar eta Udalako auzotarrak Urkiolara eta Bizkaira joateko.

Garagartzarrak Lizueta eta Arlabanetik; gesalibartarrak Zabolainetik (jadanik 1460an aipatzen dena) eta udalatarrak Aitaburutik joaten ziren Besaidetantz. Bide guzti horiek, oraindik ere, erabilgarriak dira nahiz eta baso pistekin nahasten diren. Zenbaitzuk, gainera, markatuta daude.

**Bidebarri (Gesalibar, 1862, 1866):** Aurrerago azalduko dugun *Parraia bidea* da, hots, auzogunetik *Parraia* alderantz doana. Bide hori, Saratxo baserrietik gorantz doan asfaltaturiko bidea izango litzateke. *Bidebarrik* edo *Bidebarrietak* inguruko baso eta zelaiei eman die izena.



Garagartzako *Bidegorriak* Kobateko harrobitik ezkeralderantz jotzen du, eta gero eskuinaldera sartzen da, Liñuerrekan.

San Jurgi eta Zabolainera iristeko betidanik bide honetaz baliatu izan dira; beraz, *Amatio*, *Zabolain* eta *Urkiola bideen* bideune bat da.

**Bidegorri (Garagartza):** Garagartzan dagoen bide honek ez du gaur egun bizikletari lotu-

*Antoña-Etxebarritik Saburdiarantz irteten den bidearen izena litzateke "Bidezabaleta"*

ta dagoen zentzu bera, Bostate baserrira zihoan bide zahar bat baitzen. Beraz, *Bidegorria* eta *Bostateko bidea* berdinak izango lirateke. Bide honek, Kobateko harrobitik ezkeralderantz jotzen du, gero eskumaldera sartzeko, hots, Liñuerrekan. Han-

dik gora jausita dagoen Bostateko baserrira iristen da.

Nahiz eta lehenagoko zabalera mantentzen ez duen, bidea nahiko egoera onean dago. *Bidegorria* Bostateko hildakoak garraiatzeko erabiltzen zela dirudi; beraz, kurtzebidea zen.

**Bidezabaleta (Musakola):** Aurrerago azalduko den *Sagardia zar-bidea* eta *Bidezabaleta* bera direla ematen du. *Bidezabaleta*, Antoña-Etxebarritik Saburdiarantz irteten den bidearen izena izango litzateke, eta agian, Saburdiarako bidean egin zen egokitze batek eman zion izen berria (*Bidezabaleta*).

**Bide Zarra (San Andres, 1899):** 1899 urtean Arrasateko Udalak auzobideen zerrenda burutu zuenean, San Andres auzoan *Bide Zarra* zeritzan zorbidea jasotzen da. Agian, San Andresetik (Takolo ingurutik) hasi eta Azube-azpitik pasatuaz, Bedoñara zihoana izan zitekeen. Lehenxeago aipatu den bezala, Bedoña (orduan Aretxabaleta barruan zegoena) eta Arrasate lotzen zituzten bide asko zeuden, eta beraz, zaila da jakitea horietatik zein zen.

Hala ere, ezin dezakegu ziurtatu bide honek Arrasate eta Bedoña lotzen zituenik".

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko urtarrilaren 28a / 137. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Elurteak zailtasunak eragin zituen Aramaioko zenbait lekutan

UBANE MADERA

Gogoz egin du elurra egunotan Aramaion eta paisajea zuri-zuri ipintzeaz gain, zailtasunak eragin ditu. Zenbait auzotara ezin zen igo eguaztenean; udaletxean osoko bilkura bertan behera utzi zuten eta tarteka, argindarrean etenak izan zituzten.

Udaletxetik jakinarazi zigutenez, auzoetan elur handiak egin zituen martitzen gauean. Horren ondorioz, zirkulazio gutxi zegoen auzotara ez zen automobileren igotzerik. Urribarritik, esaterako oinez jaitsi ziren zenbait auzotar. Arexolan, berriz, bidea garbi samar zuten, hasierako zatian behintzat, eta elurra kentzeko makinei esker. Hain zuzen ere, halako egoeretan ohi dutenez, herritarren hamar traktore egokitu eta elurra kentzeko makina bihurtu zituzten, bideak garbitzeko. Etengabe ibili ziren lanean, eta hala eta guztiz ere, zenbait herritar kexu ziren, makina eske. Pazientzia eskatu zuten udaletxetik.

Aramaiotik kanpora joateko bideei dagokienez, berriz, Arrasaterakoa erabilgarri izan da, kontuz ibili beharra zegoen, baina ez zuten itxi. Kurtzetan, berriz,



ROSA MONDRAGON

Dezente elur pilatu zen eguaztenean Aramaioko baxterretan.

kateak derrigorrezkoak izan dira egunotan. Horren ondorioz, esaterako, egunotan udaletxean bestetan baino langile gutxiago ibili dira lanean.

Era berean, argindarrean etenaldiak izan ziren, gau partean batez ere. Hori bai, jakinarazi ziguten, arazo handiegirik ez zutela eragin.

Bestalde, San Martin Eskolan ere igarri zuten elurtearen eragina. Arrasateko eta Aramaioko

irakasleak bai, baina kanpokoak ez ziren iritsi eskolara. Ikasleei dagokienez, haiek eramateko garraioa ez zen ibili eta zenbaitzuk ezin izan zuten eskolara joan.

Eta istripuei dagokienez, albiste hau idazterakoan jasotako informazioen arabera, ez zen istripu larririk izan. Hori bai, oro har, herritarrek eta batez ere auto gidariek zailtasun handiak izan zituzten harantz eta honantz ibiltzeko.

## Osoko bilkura bertan behera, elurraren eraginez

U.M.

Udaletxearen jardunean ere eragin zuen elurteak, izan ere, eguaztenean urtarrilari dagokion osoko bilkura egitekotan ziren eta bertan behera utzi behar izan zuten; besteak beste, idazkariak ezin izan zuten joan.

Beste gai batzuen artean, otsailaren 20ko erreferendumean mahaian egon behar diren herritarren izenak zozketatu behar zituzten

eguazteneko batzarrean. Baina, idazkariak berak ere ezin izan zuten lanera joan, horrenbestez, atzo (barikua) edo herenegun (eguna) egitekotan ziren zozketa; baina albiste hau idatzi dugunean ezin izan dugu hori konfirmatu.

Bestelakoan artean, *Limitaua* dela eta Otxandioko Udalaren idatzi bat, tsunamia dela eta laguntza eskaera eta Jon Agirreren gainerako mozioa landu behar zituzten. Mozioaren kasuan, presoaren senide eta lagunek eta udal gobernuko alderdi guztiek adostu dute.



Agirreren senideak, Etxerateko ordezkaria eta Aramaioko medikua, prentsaurrekoan.

## Bertso txapelketako finala Iturrietan jokatu dute

U.M.

Arabako Taldekako Bertso Txapelketako finala jokatu dute, etzi, domeka. Iturrieta sagardotegian izango da saioa, 14:00etan hasita.

Negu parte honetan, Arabako Taldekako Bertso Txapelketa jokatzeko dabilza Arabako zenbait bertsolari. Hiru dira ekimenaren helburu nagusiak: Araban dauden bertso eskolak aktibatzea, bertso gintzaz bestelako langintzetan jendea trebatzea

(gai-jartzailea, epailea...) eta, oro har, lehiaketetan eta jendearen parte-hartzea bultzatzea. Jakina, lehiaketa horretan aramaiotarrak ere badira. Eta ez hori bakarrik. Bertso txapelketa horretako finala Aramaion jokatu dute.

### GORBEIA ETA GASTEIZ

Hain zuzen ere, bihar izango da, Iturrieta sagardotegian, 14:00etan hasita. Eta herrikideak lehiari ikusteko aukera izango da. Izan ere, Gorbeialdeko eta Gasteizko taldeak iritsi dira fina-

lera. Hala, aramaiotarrak Gorbeialdeko taldean lehiatuko dira, gasteiztarren kontra. Honako hauek jardungo dute: Gorbeialdean, Manex Agirre, Andere Arriolabengoa, Josu Ormaetxea eta Hodei Lopez de Arkautek; Gasteizko taldean, Juan Mari Lopez, Alberto Martinez, Rikardo Gonzalez de Durana, Xabier Rico eta Felipe Zelaietak.

Besteak beste, honako lana egin beharko dute bertsolariak: ofizialaren probak, besteen puntuei erantzutea, denak baten kontra eta kartzelako proba.



Iturrietan jokatu dute finala, 14:00etan hasita.



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

Osasun etxea (txandak) . . . . .	945 44 53 40
Botika . . . . .	945 44 50 03
Udaletxea . . . . .	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate) . . . . .	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio) . . . . .	945 45 52 52
San Martin Eskola . . . . .	945 44 50 04
Taxia eta autobusak . . . . .	945 44 50 33
Udal kiroldegia . . . . .	945 44 53 35
Postetxea . . . . .	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea . . . . .	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga) . . . . .	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** izartxoak duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

**OHARRAK**

**DOMEKAKO ZINEMA**

Oraingo domekarako *El Jorobado de Notre Dame* umeendako filma iragarri digute. 17:00etan hasiko da.

**ABESBATZA**

Bizente Goikoetxea abesbatzako zuzendari Juan Jose Polek jakinarazi digunez, urtero moduan herriko abesbatza kantuan ibiliko da Santa Ageda bezperan. Ordutegia, ibilbidea eta halakoak oraingo astean ziren lotzekotan.

**LAGUNTZAK ESKATZEKO EPEA**

Astehenean, urtarrilaren 31n, bukatuko da elkarte eta fundazioek jarduerak egin ditzaten dirulaguntza eskatzeko epea. Baita pentsiodunak bainuetxeetara joateko eskaerak egiteko epea ere.

**ARATUSTEETAKO LEHIAKETA**


Aramaioko Udalak jakinarazi digu dagoeneko zabalik dagoela aurtengo Aratustee-tako mozorro lehiaketan izena emateko epea. Taldeka zein banaka aurkez daiteke lehiaketara. Sariak ere hala sailkatuko dituzte. Interesa duenak udaletxera jo beharko du.

**KULTURA**

**Zinema saioa doan, halako saioen aurreneko urteurrena dela-eta**

Otsailari begira, dagoeneko iragarri dizkigute datozen lau bari-kuetan emango dituzten filmak. Hala, oraingo asterako, AEBetako Steven Spielberg zuzendariaren *La Terminal* filma aukeratu dute. Besteak beste, Tom Hanks (*El Naúfrago...*) eta Catherine Zeta-Jones (*Ocean's Eleven...*) aktore ezagunak dira filmeko protagonista. Kontua zera da: filmeko protagonista derrigorrez AEBetako aireportu batean gerarazten dute, zenbait hilabetez. Haren nondik norakoak kontatzen ditu Spielbergen komedia erromantiko horrek. *La Terminal* 22:30ean hasiko da.

Bestalde, datorren otsailaren 13an urtebete egingo du barikue-tako zinema ekitaldiak ematen hasi zirenetik. Hala, bada, antolatzaileak, Alex Aginagaldek jakinarazi digu hori ospatzeko otsailaren 11n (barikua) emango duten zinema saioa doan izango dela. Hain justu ere, egun horretan,



Zeelanda Berriko Niki Caro zuzendariaren *Whale Rider* drama emango dute. Keisha Castle-Hughes, Rawiri Paratene eta Vicky Houghton aktoreek parte hartzen dute film horretan. Zeelanda Berriko kostaldeko maorien herri batean kokatzen da istorioa. Izan

ere, Witi Ihimaera idazle maoriaren liburuan oinarrituta dago film hori. Kasu horretan ere, 22:30ean hasiko da saioa. Otsailekoarekin bukatzeko, *El Bosque* (suspentsea) eta *Conociendo a Julia* (komedia dramatiko) filmak aukeratu dituzte.

**BOTEPRONTOAN/ Gotzone Larrañaga · Uxarte landetxeko arduraduna**

*“Nik hau egin nuen lanpostua sortzeko; ama eta ahizpa zaintzeko nire lana etxean behar nuen”*

**U**ntzillako auzo alkate zela ezagutu genuen Gotzone Larrañaga. Bide batez, Uxarte landetxeko nondik norakoen berri ere eman zigun. Dagoeneko utzi du alkatetza; Uxarten, baina, buru-belarri jarraitzen duela kontatu digu, gustura:

**Badira urteak Uxarte zabaldu zenutela; zela doa negozioa?** Zortzi urte dira ofizialki zabaldu zela; zortzi eta erdi bukatuta dagoela. Oso gustura gaude. **Eta zeuen bizimodua? Azken batean, etxea ipini duzue bezeroen esku eta horrek nekatu egin dezake...**

Uste dut dela norberaren mentalitatearen arabera. Landetxea ipintzen duenak etxea konpontzeko, nekatu egingo da: helburua bete du, etxea konpondu du, hartu ditu laguntzak...

Baina uste dut landetxea ipintzen bada lanpostu moduan, desberdina dela. Lanpostu bat ez da 10 urtean bukatzen, aurrera egiten du.

**Konpontzea aipatu duzu, sasoi batean askok landetxea ipintzeko aitzakiarekin etxea konpondu zuelako, ezta?** Lehenengo, sortu zenean *boom* handia izan zen; fondo galdura ematen zuten dirua, oso lotura gutxiarekin... Etxea konpontzeko



*“Hona datorrenak hemengo jana eskatzen du; zaporean asko igartzen duela dio”*

aukera zegoen. Eta ikusi da konpontzeko ideiarekin egin zutenetako askok itxi egin dutela landetxea. Ni neu oso gustura nago. Nik hau egin nuen lanpostua sortzeko. Ama eta ahizpa zaintzeko nire lana etxean behar nuen. Eta oso gustura nago. Behin Arabako irrati batean esan nuen uste nuela hemen erretiratuko naizela, eta horixe da nire ideia.

**Behin kontatu zenigun inguruko langileak zenituela bezero nagusi; oraindik ere hala da?** Orain, lehenago etorri ziren langileak daude berriro. Bi urtean izan ziren eta berriro etorri dira. Arrasaten dabilta lanean (Construcciones Mariezcurrena). Eta beste gela bat dauka hartuta Bartzelonako batek; Fagorren dabil lanean. **Neguan ere zabalik duzue, ala?** Zabalik dago jendea dugulako. Zabalik egoten da jendea dagoenean. Gurean egun baterako gela eskatzen duenari eman egiten diogu. Badira batzuk egun biko egonaldia hartu ezean ez dutela ematen; guk beti eman izan dugu. Uste dut zaindu ezean, negozio honek ezin duela aurrera egin. **Bezeroen artean, eman izan dizue zerbaitek atentzioa...** Laneko jendea oso zintzoa da.

Turisten artean askotariko jendea dago. Urtean, asteburuetan etortzen zaigun jende gehiena Euskal Herrikoa da. **Hortaz, ez da etorri behi bat sekula ikusi ez duenik?** Bada bat edo bat. Guk momentu honetan ere ezin diegu behirik erakutsi, albokoenak erakusten diegu. Ardi batzuk eta hegazti mota dezente ditugu, ikus ditzaten desberdintasunak. Bada jendea ez dakiena zer den txitatxo bat. **Kanpotarrei zer gustatzen zaie?** Lekuak ikustea. Propaganda eta planoak ditugu eurenak. Guk gehien eskaintzen duguna da Gipuzkoa: tenpluen ibilbidea, esaterako (Oñati-Arantzazu-Legazpi-Zumarraga-Loiola-Elosu eta Bergaran zehar ostera ere hona). Eta zirrara handien sortzen die Elosugainak. Zeharo txundituta geratzen dira hango arbola arteekin... Landa inguruko urtegiak ere ikusten dituzte... Mendira datozei gustatzen zaie Orixol-Urkiola ibilbidea. Ibilbidea egin eta gero Urkiolara euren bila joaten gara automobiler. Eta egun askorako datozen hiriburuak ere ikusten dituzte. Askotan, Gasteiz ez ikusteko asmoarekin datoz. Geuk hirurak ikusteko gomendatzen diegu, eta oso gustura bueltatzen dira.

## ERRETRATUZHARRA

Untzilla  
auzoan, Jesus  
adoratzen

**D**ebagoieneko Euskara Elkar-goak (Debagunek) ateratako aurtengo egutegiko argazkien artean, Aramaioko baten berri eman digute oraingo honetan. Hain zuzen ere, azkeneko argazkia da, abendukoaren ostean datorrena.

Egutegiak berak dioten moduan, Aramaioko Untzilla auzoan atera zuten argazki hori, 1947ko ekainaren 22an; hain zuzen ere, Jesusen Bihotzaren Jaurespen (Adorazio) eguna ospatzeko elizkizunetan ateratakoa da. Egun horren izenak dio Jesusen Bihotza adoratzeko dutela, baina erlijio katolikoaren argibideen arabera, oro har, Jesus bera adoratzeko da egun horren funtsa.

Argazkian agertzen diren herritarrei dagokienez, berriz, gure berriemaileak lagundu digu haiek identifikatzen. Honako hauek dira, goian, ezkerretik hasita: Paulino Mazmela (Urruti Goikoa baserrikoa), Gumer-sinda Artomaina (Urruti Behekoa baserrikoa), Fernando Beitia (Arraena baserriko semea), Jesusa Bergare-



txe (Garaikoetxeako alaba), Bizente Oteiza (Etxebarrikoa), Andresa Mazmela (Aintxiko baserrikoa), Federiko Iriarte (Sakoneko baserrikoa), Maria Korta (Muru baserrikoa), Balentina Zilaurren (Azpikoetxe baserrikoa) eta Felix Bergaretxe

(Lugartei baserrikoa).

Beheko ilaran, berriz, honako hauek daude, ezkerretik eskumara: Nikolas Zilaurren (Zeraingoa), Domingo Larrañaga (Ukarte baserrikoa), Juan Isasmendi (Baroienakoa), Bizente Iriarte (Oletzekoa) Martzelo

Agirre (Arrati baserrikoa) eta Eugenio Agiriano (Palaziokoa).

**Argazkia:** Untzillako eliza.  
**Informazioa:** Jesus Agirre.  
**Urtea:** 1947.

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Maalako  
biribilguneko  
lanak

**M**aalako biribilgunea izango da herrian zirkulazio handien egoten den lekuetako bat, bertan elkartzen dira eta Garibai eta Otalora etorbideak. Biribilgunea hori txukuntzeko lanak 1994an hasi zituzten. Zirkulazio arazoak izan ziren, auto-ilara handiak sortzen zirelako. Hain zuzen ere, 26 milioi pezeta gastatu zituzten lanok egiteko.



≈ 1994

Biribilgunea zabaltzeko, Aramaio erreka apur bat gehiago estali behar izan zuten, eta hainbat zuhaitz kendu.



2005

Lanak martxoan hasi zituzten, eta irailean amaitu. Ohikoa ez den arren, uste baino lehenago egin zituzten lanak.



KONTRATAK  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**BASATI**  
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

943 711768

## GORKA ILEAPAINDEGIA

# “Ile-apaindegia aldatu eta hobetu dugu, bezeroa gusturago egon dadin”

**A**rrasateko Gorka ile-apaindegia eraberritu egin dute eta hobekuntza oso nabaria da. Horrez gain, Aretxabaletan sukurtsala zabaldu dute. Gogoz dago Gorka ile-apaindegiko lantaldea, eta eurengana jo dugu.

### Noiz eta non zabaldu zenuen lehenengo ile-apaindegia?

1986an, Aretxabaletan, Bainuetxe kaleko 10. zenbakian. Hain zuzen ere, 1992ra arte egin nuen han lan, baina urte hartan Arrasaten ile-apaindegia zabaltea erabaki nuen, eta ezinezkoa zitzaidan bi negozio batera eramatea. Ordutik hona Arrasaten lanean jarraitzen dut.

### Orain dela gutxi Arrasateko ile-apaindegian hobekuntza lanak egin dituzue, ezta? Zer egin duzue zehazki?

Hala da. Hobekuntza lan handiak egin ditugu. Apaindegi berritzailea jarri dugu. Guztia bota dugu eta apaindegia goitik behera aldatu eta hobetu dugu, instalazio berriak, lehen ematen ez genituen beste zerbitzu batzuk... Oso txukun gelditu da guztia. Eta hori baino garrantzitsuagoa da bezeroendako, batez ere, eta lan egiten duten profesionalendako erosoagoa dela. Guztiok gusturago egon gaitezten.

### Arrasatekoa itxita eduki duzuen bitartean, lantalde osoak Aretxabaletan egin du lan, ezta?

Bai. Izan ere, ez genien bezeroei eragozpenik sortu gura, eta Aretxabaletako negozioa berriro zabaltea erabaki genuen. Horretarako, Arrasateko lantaldea hara joan zen Arrasateko lanak bukatu artean. Bide batez, esker-tu egin gura genieke bezeroei gurekin duten fidelotasuna. Asko autoa hartu eta Aretxabaletara joan dira lanek iraun duten bitartean. Asko lagundu digute. Urriaren 4tik abenduaren 23ra ibilli ginen han. Eta azken egun hartan berriro zabaldu genuen Arrasatekoa.

### Baina ordutik hona bi negozioak dituzue zabalik, ezta?

Bai, hala da. Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan bezeroak ditugu eta erabaki genuen euren erosotasunerako bideragarria zela Aretxabaletan sukurtsal bat zabalik edukitzea. Badakigu eskertuko dutela. Izan ere, Arrasaten aparkatzea gero eta zailagoa da. Eta Aretxabaletako ile-apaindegiaren ondoren ez dago halako arazorik.


### Nor da Aretxabaletako sukurtsalaren arduraduna?

Arduraduna Leire Agirrezabal da. Leire bergarra da. Nire lantaldean bost bat urte egin ditu. Orain, Aretxabaletako negozioa hark bakarrik eramango du. Ilusio handia du, eta lan egiteko eta bezeroak gustura egoteko gogo handiz dago. Leire ona da eta, gainera,



**“Gure langile kualifikatuek modaren eta bezeroek dituzten premien gaineko ezagutza handia dute”**

**“Saltoki edo zerbitzuetan lan egiten dutenek eskertu egiten dute guk eguerdietan ere lan egitea”**



orain dela gutxi, maila handiko ikastaro bat egin du: ideia berri askorekin etorri da, koloreak, mozketak... Horrez gain, besteak beste, gizonzkoekin lan egiten espezializatuta dago, baina oso gustuko du, baita ere, emakumezkoei mota askotako aldaketak egitea.

### Beraz, Aretxabaletan emango den zerbitzua ere maila handikoa izango da?

Bai, zalantza barik. Leire oso profesional ona da eta eskola handia du. Aurrerantzean ikusiko dugu beste laguntzailearen bat behar duen. Ordura arte, ni neu eguaztenere joango naiz hari laguntzera. A, eta bide batez irakurleei gogoratu gura diet Aretxabaletan 25 urte edo gutxiago dituzten lagunei %20ko deskontua egingo diegula.

### Gorka ile-apaindegiko lantaldea gaztea da?

Bai, lantaldea sei neska gaztez osatuta dago. Bat, Aretxabaletan; eta bost, Arrasaten. Kualifikatutako langileak dira, modaren eta, batez ere, bezeroek dituzten premien gaineko ezagutza handia dutenak.

### Eta zer-nolako bezeroak dituzue?

Mota guztietakoak. Emakumezko asko eta gizonezkoak ere ugari. Jende mota guztiarekin lan egiteko gauza gara. Datorrenari asko begiratzen diogu: zelan doan, zer janzen duen, zer gustatzen zaion... Bezeroaren eta profesionalaren arteko elkarrekin egiten dugu. Egiten diogunarekin gustura egotea da gure helburua; eta egiten diogun aldaketak bezeroari on egitea. Horregatik, mota guztietako lanak egiten ditugu: estilo klasikoetatik abangoardistak diren arte, eta, tarteka, ukitu modernoak ere sartzen ditugu.

### Zeintzuk dira zuen espezialitateak?

Mozketa onak egiten ditugu, pertsonarekin ondo doazen mozketak; abangoardiako koloreak sartzen ditugu; moldatzaileak egiten ditugu... Horrez gain, emakumezkoak ospakizunetarako eta dotore jartzen ditugu, ile bilduak... Batez ere, estilo klasiko-abangoardista. Horrez gain, lan pertsonalizatuetan ukitu modernoak gehitzen ditugu.

### Zein da Gorkaren estiloa?

Gorkaren estiloak dauka ukitu berezia, batez ere, aldaketan eta baita mozketan ere. Bezero batzuk estilo aspergarri batekin bada toz eta zer gura duten ez badakite, bezeroaren eta profesionalaren artean erabaki bat hartuko dugu. Irudi aldaketa onuragarria egin dezaten iniatiba hartzen laguntzen diegu, on egingo diona. Baina ez gara astunak izaten aldaketaren proposamenarekin. Argi dago bezeroak daukala azkeneko hitza. Bezeroa estiloarekin gustura badago, aldaketa txikia egitea gomendatzen diogu, eta oreka lortzen ahalegintzen gara: aldaketa neurrikoa izan dadila.



**GORKA** ileapaindegia

Ordutegia:  
Astelehenetan : 10:00 - 19:30  
Asteartetik ostiralera : 09:30 - 20:00  
Larunbatetan : 08:00 - 14:00

Ferreries 35 ARRASATE Tel.: 943 77 13 78  
Bainuetxe 10 ARETXABALETA Tel.: 943 79 70 25

# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. .... 943 77 13 34

## DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 ..... 620 12 48 43

## ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otalora lizentziaduna 18 ..... 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 ..... 943 79 71 68

## FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ..... 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. .... 943 77 14 72

## KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma. .... 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .. 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk ..... 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea ..... 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. .... 943 77 12 63

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 ..... 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 ..... 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 ..... 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. .... 943 79 65 56

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 ..... 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... 659 58 66 89

## PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma ..... 943 79 97 46

## PSIKOLOGIA

- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H ..... 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... 943 79 88 16

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. .... 943 79 44 22